

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2019

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira disolbatzaile organikoak dituzten gainazalak tratatzeko hainbat industrien ingurumen-baimen integratua berrikusteko espedienteak, zura eta egurretik eratorritako produktuak produktu kimikoak erabiliz kontserbatzea barne.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduarien 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzeko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu baten bidez, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ingurumen-baimen integratuak ofizioz berrikusteko, instalazio baten jarduera nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenen (TEO) inguruko ondorioak argitaratzearen ondorioz. 2020ko abenduaren 9an argitaratu zen Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean Batzordearen 2020ko ekainaren 22ko Exekuzio-erabakia, disolbatzaile organikoekin gainazalak tratatzeko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraiki, zuraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa barne.

Berrikuspen-prozedura araututa dago aipatutako testu bateginaren 26. artikuluen bidez, eta Industriako Igorpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. eta 15. artikuluen bidez. Prozeduran ezartzen denez, espedienteak gutxienez hogeit egunez jarri behar dira jendaurrean.

Horregatik guztiagatik, jendaurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espedienteak, hogeit egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharra aurkez daitezten. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 17a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.

2024ko apirilaren 26a, ostirala

ERANSKINA

Disolbatzaile organikoak dituzten gainazalak tratatzeko industriak, zuraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa barne, produktu kimikoak erabiltzen direnean, horien berri-kuspen-espeditenteak jendaurrean jartzen badira.

Espedientea	Ingurumeneko baimen integratuaren titularra	Herria/Udalerria
AAI00032	Mercedes-Benz España, S.A.U.	Vitoria-Gasteiz
AAI00143	Envases Universales Ibérica, S.L.U.	Ugao-Miraballes
AAI00225	Ramondin Cápsulas, S.A.	Laguardia
AAI00276	Ederfil Becker, Koop. E.	Alegia
AAI00295	Ederfil Becker, Koop. E.	Legorreta
AAI00400	Plastigaur, S.A.	Andoain